

Berroztegieta

7,25 km | ZIRKULARRA ERRASA | 320m | Walking 1h. 30' | Running 50' | www.walkingandrunning.es

BERROZTEGIETA (617m) > SAN KILIZ (836m) > ZALDIARAN (978m) > ARENAL GANA (891m)



San Kiliz, "Danbolina"



Gasteiztik hurbil egoteak natura-baliabide zoragarri bihurtzen du Gasteizko Mendien inguru hau bertara ihesaldi bizkor bat egiteko, dela paseo lasai bat emateko, dela erkamezti eta pagadien artean *trail running* ibilbide bat egiteko. Euri-garaian buztin-lokatz dezente daukate pistetako zenbait tartek; uda-partean, aitzitik, aukera bikaina da berotik ihes egiteko.

Berroztegieta (540m) hasten da ibilbidea, Arabako hiriburutik hurbilen dagoen Gasteizko kontzejuetako batean, sarbidea Zaldiaran mendatera daraman A-3102 errepidetik duelarik. Aparkaleku txiki bat dago Berroztegieta urbanizaziorako sarreran, Baserriaren Bidexkan.

Errepidea aparkaleku horretatik gurutzatuta (📍 1) berehala nekazaritza-erabilerako hesi batera garamatzen pista bat hartuko dugu (📍 2), pinudien arteko igoera arin batean barneratzeko (📍 3). Galtzeko arriskurik gabe eta GR-25 ibilbidearen marka zuri eta gorriei jarraikiz Eskibelgo eta Zumeltzuko norabidean bidegurutze bat aurkituko dugu (📍 4), Zaldiaran mendateko iparreko mendi-leporako bidea emanez.

Igoera estutu egiten da eta altuera hartzen du Zaldiaran mendateko ipar-isurialdearen norabidean. Altuera pixka bat hartzen dugun bezain laster bistak argitu egiten dira eta Gasteiz ikus dezakegu (📍 5) San Kiliz mendiaren gailurrera (836m) iritsi aurretik (📍 6), jendearen artean 'Danbolina' izenez ezagutzen dena.




Puntu horretatik ditugun bistek Zaldiaran mendatea eta haren errepikagailu bereizgarria erakusten digute aurrean, Eskibel eskuinean eta Gasteizko Mendien mendi-lerro guztia gure ezkerretara ditugularik.



Walking & Running VITORIA-GASTEIZ

Jaitsiera labur baten ondoren, malda arin bati egingo diogu aurre (📍 7) Zaldiaran mendatearen mendi-hegalerako azken tarteari ekin baino lehen. Igoerari ekin aurretik, gure bidea zatitu egiten da eskuinaldean (📍 8) berez lurrari darion ur-iturri txiki bat aurkitu aurretik (📍 9). Jaitsierari ekingo diogu (📍 10) Eskibelgo errekekiko paraleloan doan bide bat hartu eta herrira bertara daraman pista aurkitu arte.

Berroztegiatara itzuli ondoren marka gorri eta zuriak hartuko ditugu berriro ere (📍 11), eta abiapunturaino eramango gaituzte galtzeko arriskurik gabe.



interesguneak

- Zaldiarango (978m), Bustuko (976m) eta San Migelgo (943m) gailurretan barrena garamatzen bidea.
- Armentziako basoa.
- Santa Eulaliako eliza (Berroztegieta).

informazio gehiago

www.walkingandrinning.es
www.turismo.euskadi.eus

Armentziako basoa 📍

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#BasqueExperience